

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMIAG

Antzinako lanbideak

13 zbk.

2006ko urtarrilaren 8a



ANTZINAKO LANBIDEAK

Lanbideen gaia ere etengabe aldatuz joan da urtetan zehar. Hainbat langintza bazenik ere ez da gogoratuko bakarren bat. Aurrekoek bizimodua zertan eta nola lateratzen zuten jakitea, gai polita izan daiteke gazteagoentzat ere. Esnezaleetatik hasi eta perratzaileak bitarte,

hamaika lanbide ezberdinen berri dakargu. Eskulanak garrantzia handia zuen, ez zuten makinak eta teknologia berrien aurrerapenik ezagutzen. Batean edo bestean, ahal zen moduan ateratzen zuten bizimodua orduan ere. Hori bai, lana gogotik eginez...

ESNEZALEAK ETXEZ ETXE

Antzina-antzinan, oreka ondo baino hobeto mantenduz, marmitek buruan hartuta banatzen zuten esnea. Geroago, astoa edo behorraren laguntzaz esnezale ugari ibiltzen zen esne partiketan. Izan ere, garai hartan esnea etxera eramaten zen, ez zen dendetan erosten, letxerian izan ezik. Letxerian mantekilla edo gazta egiten zuten esnearekin, baita tabernetarako izotza ere. Amasarrak ziren esnezale gehienak, Pepita Lasa eta Maritxu Mendizabal tartean. Villabonatar neskek ere aritzen ziren amasar baserrietako esnea etxez etxe banatzen; "Bordan eta beste hainbat baserrian esnezale asko zeukaten banaketarako. Ni urte askoan aritu nintzen marmita hartu eta Villabonan esnea banatzen. Astoan ekartzen ziguten esnea, gu ez ginen Amasara bila igot-



Pepita Lasa esnezalea banaketa eta gero.

zen" azaldu du Maria Luisak. Maritxu Mendizabalek "guk, kozkorrak ginen arte, ez genuen etxeetan esnerik banatzen. Villabonako letxerira eramaten genuen jasotako guztia. Arregineren bai, hara txikitatik ezagutu dut marmita txiki batean nola eramaten genuen esnea. Enkarguak han egiten genituen, jakiak ere izaten baitzituzten, olioia nola erosten genuen gogoan dut". Amasatik Villabonara esnezale gehienak astoz jaisten ziren, baina ez guztiak:



Maritxu Mendizabal

"Guk, kozkorrak ginen arte, ez genuen etxeetan esnerik banatzen. Villabonako letxerira eramaten genuen jasotako guztia"

Pasuko Pepita behorraren gainean jaisten zen. Asto-zestoak bi marmita sartzekoak baziren, hirukoak eginarazi zituzten Pasuskoek. Behorra altuegi geratzen omen zitzaion Pepitari eta animalia koska baten ondoan jarri, buelta emanarazi eta antzeko sistematik asmatu behar izaten zituen. Esnezaleek marmitetan ekartzen zuten esnea eta ez zuten, oro har, baserriko beste elikagairik ekartzen, baldin eta norbaitek zerbait zehatza eskatzen ez bazien.

ARRAIN ETA FRUTA SALTZAILEAK KALEAN

Garai batean, arrain saltzaile asko ibiltzen zen Villabonako nahiz Amasako kaleetan. "Bai, bai, gure etxeetaraino igotzen ziren arraina saltzera" diote amasarrak. Arrain saltzaile ugari ezagutu zuten herrian: Maria 'peskadora', Karmen Zubeldia, Roxario Garaia... Haietako batzuk arrandegia zabaldu zuten geroago, baina hala ere, karroa hartuta, etxez etxe ibiltzen ziren arraia banat-



Pello Iribar

"Herrikoak bai, baina Aiatik barrena, mendiz, Orioko arrain saltzaileak ere etortzen ziren antxoak saltzera"

zen. "Herrikoak bai, baina Aiatik barrena, mendiz, Orioko arrain saltzaileak ere etortzen ziren antxoak saltzera. Pentsa!, 'Antxo freskoa!', egiten zuten oiho. Dozenaka saltzen ziren". Antxoez gain zein arrain gehiago saltzen zen orduan? "Angulak ere bai! Merke gainera. Bisigua ere egun baino askoz ere merkeago saltzen zen orduan. Katuarrairene ere dezente, azala kendu behar zitzaion arrain itsusia izanagatik, tomate pixka batekin, bai gozoa! Peskadilla txiki horietakoak ere baziren. Pantxoak, palomitak, oilarrak... Xapoa geroago etorri zen eta bakailaoa, garai hartan, ez zen ikusi ere egin nahi. Pobreen jana zela esaten zen". Kontu bitxi modura, ba al dakizue garai batean San Tomas egunez txitarroak oparitzen zituztela Donostiako portuan? Arrazoia, "garai horretan asko izaten zelako".

Ez dute zalantzarik egin, "fruta saltzaile-



Roxario Garaia arrain saltzailea.

rik ezagunena Andoaingo 'Ederra' zen. Nafarroatik etorri zen Andoainera, Dionisio Alvarez zuen izena. Andoainaren nahiz inguruko herrietan saltzen zuen fruta, batzuetan Txopeitia koinatarekin ibiltzen zen". Garaian garaiko fruta saltzen zuen, "orduan urte guztian ez baitzen denetarik izaten. Laranja, sagarra, platanoa... Beno, platanoa ez zuen edonork jaten. Kanarietatik ekartzen zuteneguz, garestia zen. Nork jango orduan platanoa! 1928 urte inguruan iritsizen honuntza. Egun saltzen diren beste fruta asko ez genituen

ezagutzen. Urte garai honetan gaztaina izaten zen ugari". `Ederra`z gain, saltzaile gehia-

go ere etortzen zen laranja edo beste fruituren bat saltzera. Fruta saltzailearen pare-

an, egun baino elikagai gehiago saltzen zen kalean, besteak beste, ezta.

ERREKADISTA, SASKIA BETE ENKARGU

Maria `errekadista` oso ezaguna zen Villabonan, "arraina saltzen aritu zen lehenengo eta errekadista hasi zen gero; enkarguak egiten. Salvadorako zuzendariaren alaba zen. Zerbait behar izanez gero, kalean ikusita-koan nahiz haren etxera joanda, Donostiatik ekartzeko eskatzen zitzaion, egunero joaten baitzen hiriburura, tranbia hartuta. Ekarrri edo entregatu, Donostiara zerbait eraman behar bagenuen ere, berari esaten genion. Donostiako kale guztiak ezagutzen zituen, ez pentsa, garai hartan hori ez zen oso ohikoa. `Ekaizkidazu botoiak halako dendatik`, eta eskatutakoa ekartzen zuen, etxeraino gainera. Balio zuena ordaindu eta hurrengora arte". Maritxu Mendizabalek beste aipamen bat ekarrri du mahaira, "gera ondorenean, Manolita Egañari esnea eramaten zion Donostiara. Goizero jaisten genion baseritik esnea Mariari. Hiru litroko bi marmita txikirekin ibiltzen

zen bueltaka; bete eraman eta hustutakoa ekarrri". Mariaren irudia ondo gogoan dute guztiak, "amantala beltz handi batekin ibiltzen zen Maria, bi patrika zituen; gauzak gordetzeko. Bota altuak janzten zituen. Ilea motz-motza zuen eta antiajuak lodilodiak".

Joxe Mari `Okerra` ere oso abila zen herrian enkarguak egiten. "Hark ordea, dirurik ez zuenean bakarrik egiten zituen enkarguak. Entzuna dut nola Izkiña tabernako etxekoandreak `aizak, joan hadi estaziora eta ekaizkidak enkarguak` esan omen zion behin eta `Okerrak`, patrikan diru pixka bat bazuenez, ipurdiaren gainean eskuak jarrita, apain-apain, `que trabajen los pobres` erantzun omen zion. Hark, peze-ta-zilarra baino, bederatzitxi txakur nahiago; patrikarako diru gehiago, estimazio gehiago". Zein enkargu mota egiten zuen? "Eramaiok hau hari, ekartzak hura handik...



Maria `errekadista` senarrarekin batera.

batetik bestera ibiltzen zen zentimo batzuen truke". Errekadista izateaz gain, kalegarbitzaileari laguntzea ere egokitu zitzaion `Okerra`ri. "Ospitalean nola baitzegoen, Udalak, nolabait laguntzeko, lanera behartzen zuen. A ze erretolika izaten zuen... Zeharo amorratuta ibiltzen zen... Kristorenak eta bi esaten zizkion gure aitari, lanera behartzen zutelako" azaldu du Maria Luisak.

Geroago, beste errekadista ezagun bat izan zen herrian: Euxebio Beldarrain. "Papele- ran egiten zuen hark lana, Portunean. Zaldiarekin ibiltzen zen enkargutan, batetik bestera".

KAMIOIRIK APENAS, ITZAINAK UGARI, KOTXEROREN BAT

Garai hartan ez zegoen apenas kamioirik. Garraioa ganaduaren eta gurdiaren laguntzaz egiten zen. Hala ere, tartean-tartean pasatzen zen kamioiren bat, "gogoan dut, mutteirako bidean, hamazazpi urte nituela-edo, nola pasatzen ziren tarteka kamioiak adio eginez" azaldu du Maritxu Gonzalezek. Villabonatarrek gogoratzen duten lehen kamioia Aizpuruarena zen. Geroago etorri ziren besteak.

Idiekin eta gurdi edo karroekin ibiltzen ziren garraiolari gehienak; itzainak. Barre-netxe, Asintsio eta geroago baita Azkain-goak ere. Azken hauek Salvadorako garraio-lariak ziren eta ikatza, lanerako pasta edo papera garraiatzen zuten. Beste biek, berriz,

etxe bat egin behar zenean, harrobitik harria ekartzen zuten karroan. Maritxu Gonzalezek itzainen aipamen polita aipatu du, "lehengo itzainek, hotzena, Iruratik Andoainera bitarteko tarte hori zela esaten zuten; kamioia zuzen-zuzena izanik, haizeak gogor jotzen zuela". Subijana lantegian ere baziren garraiolariak; zaldiz ibiltzen ziren haiek. Oihalak garraiatzen bazituzten ere, bereziki lantegiko nagusiak ibiltzen zituzten batetik bestera. "Karro polita zuten haiek, zaldiekin ibiltzen zena gartziatarra zen". Garai batean, Villabonako neska dezente joaten zen Andoaingo Subijana lantegira lanera, tartean Maria Luisa Zalakain; "guri Andoaingo kotxeroa etortzen zitzaigun



Bordako iguarandarrak astoa eta idiekin. Garraiorako nahiz lurra lantzeko erabiltzen ziren.

bila, Istuitzako Julian. Karroan joaten ginen lehenengo, autoan gero eta tranbian geroago".

TRANBEROA, KOBRADOREA ETA INTERBENTOREA, TRANBIAKO ARDURADUNAK

Tranberoa arduratzen zen tranbia gidatzeaz. Zutik gidatzen zuen, tranbiaren kanpoan, aurrealdean, "nahikoa haize hartzen zuen,

bai horixe!". Tranbiak martxan jartzeko eta geratzeko palanka bat zuen, baita hankarekin jotzeko txirrina ere, `ttin, ttin, ttin, ttin,

ttin`". Hizlariek ederki gogoratzen dute tranbiaren nondik norakoan berri, oso gustura ibiltzen ziren duela urte mordoia desager-

tutako garraibide hartan. "Inauterietara jendea ateetatik zintzilika joaten zen. Jende asko biltzen zen". Egun berezietan ez ezik, bestela ere jende ugari ibiltzen zen, "zain geundenean, postean belarria jarri eta; 'badator, badator!' esaka aritzen ginen. Soinua sumatu egiten zen. Kablea mugitzen hasten zenean ere laster iritsiko zela bagenekien". Tranbia haiek Zaragozatik ekarri ziren, "lastozko esertokiak zituzten eta tartean zimitzak (txintxeak). Xomorroak ikusi bakarrik ez, sumatu ere egiten genituen. Hura azkura!"

Tranbiaren funtzionamenduz ere eman dute azalpenik, "tranbiaren gantxoak kablei lotzen zitzaion txirrika baten bidez. Gantxoak ateratzen zenean, ordea, tranbiak ezin aurrera segi, berriro bere lekura sartu arte. Generalean, bihurturara abiadura bizi



Pako Etxenike

"Interbentorea Oriakoa zen, Marin. Toki ezberdinetan ateratzen zen hura. Iruran igual edo beste tokiren batean igual..."

samarrean sartzen zenean ateratzen zitzaion gantxoak tranbiari. Txinpartak botatzen han hasten zen dinbi-danba eta dinbi-danba. Tranbia-bideak konpontzen aritzen ziren mutilek jartzen zuten berriro martxan. Joxe Arrieta zen langile haien kapataza. Gainerakoan, kobradoreak ere konpontzen zuen tarteka, "soka bat izaten zuen kasu horietarako".

Tranberoaz gain, tranbian baziren langile gehiago ere. Interbentoreak kobradoreak kobratutako txartela errebisatu eta zulatu egiten zuten. Kobradoreak bere eserlekua zuen tranbiaren atzealdean. "Interbentorea Oriakoa zen, Marin. Toki ezberdinetan ateratzen zen hura, Iruran igual edo beste tokiren batean igual...". Kale Nagusian, egungo estankoa baino pixka bat goraxeago, zentrala zegoen. Tranbian iristen ziren eskariak bertan uzten ziren eta herriarrek handik jasotzen zituzten eskatutako hainbat enkargu. "besteak beste, zentralera iristen zen Arantzabi jatetxerako arraina ere. Tarteka, langosta bizi-biziak".

Tranbia eta gero trolebusa jarri zuten, "gogotan dut 1948ko uztailean ikusi nuela lehen aldiz trolebusa Adunako zubiraino iristen".

KALE-GARBITZAILEAK, BEHI ETA GUZTI

Maria Luisa Zalakainen aita urte askoan izan zen Villabonako kale-garbitzailea, Luis 'barrenderoa' moduan zen ezaguna. "Eskuz egiten zuen lan. Behia eta karroaren laguntza jasotzen zuen etxeen kanpoaldean kaxetan utzitako zaborra lehenik, kalea garbitzeko txilarrezko erratza handiak zeuzkan eta beste karro txikiago bat, palekin beteta, zakarrak jasotzeko. Aitak kaleak garbitu eta Joxe Mari 'Okerrak' biltzen zituen zakarrak. Gu Kale Nagusiko Txuine etxe-

an bizi ginen, orain Kultur Etxea dagoen horretan. Atzean ukuilua zegoen eta bertan edukitzen zuen aitak behia, baina kale-garbitzailea zelako, bestela ez baitzuten behirik edukitzen uzten". Kale-garbitzaileen behia zela eta, hara hemen pasadizo xeblebra, "1953ko uholdeak izan zirenean, Julian anaiak Amasara igo zuen behia. Ukuilua ibaiaren ondoan zegoenez, ito ez zedin" azaldu du Maritxu Gonzalezek. Makinarik ez zegoen garaian, guztia eskuz



Luis Zalakain 'barrenderoa'.

egin behar. Eta lana bukatutakoan, non hustutzen ote zuten hondakinez betetako karroa? "Zaborra Otsabi auzoan pilatzen zuten, hantxe hustutzen zuten karroa".

AGUAZILA ETA SERENOA EDO GAUZAINA, HERRIAREN ZAINDARIAK



Martin Laskurain

"Oraingo aguazilek baino errespetu gehiago ematen zuten haiek. Orduan aguazil bakarra nahikoa zen"

Aguazilaren eginbeharretako bat bandoak irakurtzea zen. Villabonan Pio arduratzen zen lan hori egiteaz. Ezagutuko duzue dagoeneko Pio, ezta? Aldizkarian askotan egin dugu haren aipamena. "Aguazilak ezin zenean, gure aitak irakurtzen zituen bandoak. Oso gaizki irakurtzen zuen erdaraz eta lotsak edukitzen gintuen" aitortu du Maria

Luisak. Garai hartako bandoak gartzelaniaz idatzita zeuden eta 'de parte del señor alcalde, hago saber que...' esanaz hasten ziren denak. Danborra lagun izaten zuten, noski. Garai hartako bando baten berri hementxe, segidan. "Arrandegira patata etortzen zenean, Pio aguazilak bandoa egin behar zuen: 'de parte del señor alcalde, hago saber que ha llegado patata y el que quiere tomar por saco, que pase por el ayuntamiento'. Patata arrandegira? Galdetuko duzue batzuk; 'bai, bai. Baserrietatik simaurra eraman eta auzolanean egiten zen patata mutegian. Herrirako egiten zen patata eta zakuka saltzen zen gero". Amasan euskaraz irakurtzen ziren bandoak, plazan. Izan ere, bandoak irakurtzeko toki jakinak zeuden herri bakoitzean. Villabonan eliz atarian leitzen zituzten. Martinek beste bando baten

berri ekarri du: "eskolako ikasleak irteera bat egin eta gero Piok, 'tun, tun, tun, tun... De parte del señor alcalde, hago saber que los niños de esta escuela han hecho un viaje felix'. Nirekin batera txistua jotzen zuen Juanito Dorronsoro, dispartate galanta bota zuela esanaz joan zitzaion. 'Ze bota det bantik?', 'ez da felix esaten: felíz baizik'. Euskaldun-euskalduna zen eta...". Agoazilen ofizioa bandoak irakurri eta herria zaintzea zen. "Mutil-koxkorak zaintzea ere bai. Oraingo aguazilek baino errespetu gehiago ematen zuten haiek. Orduan aguazil bakarra nahikoa zen. Udaletxean bizi ziren Pio eta bere familia, hantxe zeukan lantokia ere". Egunez herria zaintzen zuena aguazila bazen, gauzez serenoak zaintzen zuen herria. "Aguazila bezala, makila eskuan hartuta ibiltzen zen, liskarren bat sortuz gero, agintea zue-

la erakusteko. Hamarretatik atzera, goizeko seirak arte egoten zen serenoa. Erditan, Salvadora lantegian sartuta edo okindegian

bestela..., ahal zuen tokian. Hamabiak ezkerro hasieran eta ordubiak eta gero aurrerago, jendea tabernatik aterazten zuen,

esaterako, larunbatetan. Tabernatik azken ateratzen zirenek, 'beti azkena atera behar, baina beti forman' esaten zuten".

KAMINEROAK, KAMIOA TXUKUNDU ETA BERRITZEKO

Hitzak dioen bezala, kamioa kamineroek konpontzen zuten, "orain ere premia eder-rra badago. Amasa alde horretan kamioa larrak hartuta baitago leku bat baino gehiagotan". Kamineroek alfer fama zuten. Haien etxolen edo kaseten kanpoaldean, 'peón caminero' jartzen zuen idatzita, p hizkia kendu eta, 'eón caminero' uzten zieten. Villabonakoak Domingo zuen izena, serenoaren anaia zen. Gutxitan igotzen zen Amasara". Foru Aldundiko langileak ziren eta



Domingo 'kamineroa' familiako kideekin.

eguneroko lana zen kamio bazterrak garbitzea. "Kaminero bakoitzak bere tramuak



Maritxu Gonzalez

"Orain ere premia ederra badago. Amasa alde horretan kamioa larrak hartuta baitago leku bat baino gehiagotan"

zituena, Domingok Villabonatik Asteasura egiten zuen lan. Kamioan zuloak konpondu behar zirenean, koadrilan ibiltzen ziren; ekipo handia. gainerakoan bakarrik aritzen ziren".

MIKELETEEK TXAPELA GORRIA BURUAN

Gerra aurretik, 36ra bitarte, Villabonan baziren mikeleteak. Egun haurtzaindegia dagoen etxea zen haien bizitokia. Hiru mikelete ziren, hirurak villabonatarak. Kaboa edo burua Panttaleon Leturia zen, Osinaga eta Roteta ziren beste biak eta aurrerago, laugarrena etorri zen, "bai, Marrubitzan bizitu zen". Eginbeharren artean, "ijitoak herri batetik bestera igaro zitezten laguntzen zuten. Ezin baitzuten bi egun baino gehiago herri berean egon. Andoaindik Villabonara, Villabonatik Tolosara..., ez dakit

noraino bidaltzen zituzten; probintziatik kanporatu arte-edo". Ijitoen jira-bira hori ez ezik, bazuten beste zeregin bat ere. "Kajarrosko lana ere haiek egiten zuten. Orain adinako hartu-emanik ez zen izaten, orain adinako txanponik ez zen eta, baina, norbaitek bere sosak gorde nahi bazituen, mikeleteengana jotzen zuten". Lapurretaren bat edo liskar gogorren bat gertatzean, mikeleteek egiten zuten horren kargu. Jantzi berezia zuten, "txapela gorria buruan; kaki koloreko alkandora eta galtzak soinean eta,



Encarna Jarza

"Ijitoak herri batetik bestera igaro zitezten laguntzen zuten. Ezin baitzuten bi egun baino gehiago herri berean egon"

esklabina edo kapa urdina sorbaldan". Batzuei errespetua ematen zien mikeleteak kalean ikusteak, beste batzuei ez. "Errespetua guardia zibilek ematen zuten, haiek ez!"



Mikeleteak Donostiako Hernani kaleko desfileen. Panttaleon Leturia lehenengo ilaran ageri da.



Mikeleteek egungo haurtzaindegia zuten bizitoki. Aurrezki kutzako txartela ere azaltzen da.

LARRUZKO ZAPATAK, ZOLA GOGORREKO ALPARGATAK

"Joakin zapateroak, bost durotan, ze bota ederrak egiten zituen!! Larruzkoak, onak, gogorak eta sendoak. Kanpotik etorri zen

baina, andrea zuen hemengoa: Zubiaurrekoa". Joakinen tailerra non zegoen ere argitu digute hizlariek, "Orain nola dago ba den-

tista zubiaren ondoan? Hantxe, hantxe aritzen zen Joakin. Neurriko zapatak egiten zituen". Esku ona zuen, inondik ere. Modu



Jabier Berasaluze

"Konpontzaileek zolak nahiz takoiak jartzen zizkioten zapatei, iltzeen bidez josten zituzten, orduan ez baitzen kolarik"

ezberdinetako oinetakoak egiten zituen, gutzia eskuz, noski. "Umeentzat botoiarekin lotzen ziren botak, pantorrila erdirainokoak. Urkila batekin lotzen ziren botoi haiek. Bai dotoreak!". Fernanda emazteak

laguntzen zion Joakini. Zapata konpontzaile bat baino gehiago ere bazen orduan, Zufiria zen haietako bat. "Konpontzaileek zolak nahiz takoiak jartzen zizkioten zapatei, iltzeen bidez josten zituzten, orduan ez baitzen kolarik".

Tranbiaren zentrala zegoen horretan, Patxik alpargaten zolak egiten zituen denbora librean. Amasako Organistaneko Joakinek, berriz, "alpargata txuriak, beltzak edo koloretakoak egiten zituen. Marrazkiren bat nahi izanez gero, denboraz eskatu behar".

Aterki-konpontzaileak etxez etxe ibiltzen ziren, 'paraguero!' oihuka. "Bazen bere etxean aterkiak konpontzen zituen emakume

bat eta Tolosatik Villabonako plazara etortzen zen beste bat. Prezio merkean egiten zuen lan". Eltzeak ere haiek konpontzen zituzten, "eltzeak konpondu egiten baitziren zulatutakoan. Burdin puska bat jartzen zioten. Lurrezko ontziak ere konpontzen zituzten pitzatzen zirenean, grapak eta alanbre-sarea jartzen zitzaizkion. Paraguroek denetarik konpontzen zuten, baita kafeterak ere". Txorroskileoak ere kalean zehar ibiltzen ziren. "Horiek ere aurreratu dute ederki: orain autoan pasatzen dira gehienetan, lehen gurpil handi bat hartuta, hura bueltaka jartzean, haren indarrarekin zorrotu beharrekoa zorrotzeko".

SASTREA ETA JOSTUNA, ALMIDONERA ETA PLANTXADORA

Sastreak jantzi eleganteak egiten zituen, "trajeak, galtzak, txalekoak nahiz negurako bero-kiak. Gizonezkoen jantziak josten zituen bereziki, baina baita emakumeen txaketak ere noizbehinka. Jantzi onak". Gizonezko sastre gehiago bazen ere, emakume sastre-ak ere baziren. Villabonan Pantxika Lasa, Santiago Lasa eta Hilario Balerdi aipa daitezke. Jostunek, berriz, denetarik josten zuten eta ugari ziren bai Amasan eta baita Villabonan ere; besteak beste, Karmen Lizarraga eta Mari Izagirre amasarrak eta Villabonako Serafina, Emilia Mintegia, Epifania Saizar, Arin ahizpak, Maritxu Alustiza..., josten aritzen ziren. "Emilia Mintegia eta Epifania Saizar oso jostun onak ziren, oso txukunak". Garai hartan arropa ia guz-

tia neurrira egiten zenez, lan asko izaten zuten sastreek nahiz jostunek eta emakume gehienek, asko edo gutxi, josten ikasi ez zuten neskarik. Epifania Saizar eta Maritxu Alustiza neskei josten erakusten aritzen ziren". Sastreak izaten zuen oihalen bat saltzeko, baina jostunari dendaren batean erositakoa ematen zitzaion. Tolosatik ekartzen zuten gehienetan.

Gaur baino arropa aukera gutxiago zuten arren, zeukatena ondo zaintzen zuten. Dotore ibiltzea atsegin zitzaion orduan ere eta, egun berezietarako, alkandorak almidonatu ere egiten zituzten; lepoak gogortu. "Zurezko alkandorak deitzen zitzaion, almidonatutako alkandorak kuelloa gogor-

gogorra izaten zuelako". Juana Xolek egiten zuen lan hori. Ile hori argi-argia zuen, txuria ia. Horregatik deitzen zioten gaztetxoek Juana Xol, nahiz eta izen hori entzutean haserretu eta makilaren bila joaten zen.

Plantxadoraren irudia ere ezaguna zen orduan. Villabonako Joakina Zelaja zen eta bere etxean plantxatzen zuen, Kale Nagusian. "Oso plantxadora ona zen, txukun-txukuna. Norbaitek jantziren bat ondo plantxatu nahi zuenean, 'Joakina plantxadora' renganajotzen zuen. Ubarretxenaren etxean egon zen neskame eta plantxan ez ezik sukaldean ere ederki ikasi zuen. Oso sukaldari ona zen". Faldoiak, soinekoak nahiz estalkiak kizkurtzen zituen, oso abila omen zen gainera. "Lan dotoreak egiten zituen, bai horixe!".

TELEFONISTA ETA KARTEROA, DEIAK ETA GUTUNAK

Etxeetan telefonorik ez zegoen garaian lokutorioak zeuden baterik bestera telefonoz deitzeko. "Villabonan, Kale Berrian zegoen; Itzalpe taberna dagoen horretan. Norbaitek lokutoriora deitu eta mezuren bat uzten zizunean, telegrama bidaltzen zizuten etxera, konferentzia zein egun eta ordutan zeneukan zehaztuz. Guk deitzen genuenetan ere gauza bera egiten zen, baina alderantziz. Agindutako ordurako joaten ginen lokutoriora, akordatutakoarekin hitz egitera". Noski, telefonoz ez zuten gaur adina hitz egiten. Gertaera bereziren bat izaten zenean soilik, "norbait jaio, gaixotu edo hiltzen zenean edo, gonbidapenen bat egiteko edo...". Villabonan berasategitarrek izan zuten lokuto-

rioaren ardura lehenengo, sarasolatarrak gero. Amasan, berriz, Organistaneko Joakin Etxeberria arduratzen zen herriko telefonoaz, "maisua, organista, alpargatagilea eta telefonista ere bazen Joakin". Amasarrak telefonoaren ardura utzi zuenean, amallutarrak hartu zuten kargu. Oraindik ere etxean dute herriko telefona. Herri gehienetan, ordea, etxeetan telefonoak jartzen hasi zirenean, lokutorioak itxi egin ziren. Karteroaren irudiaz ere hitz egin dugu eta "beti kartak partitzen" gogoratzen dute. "Estaziotik ekarri, udal-letxe azpian bertan antolatu eta, poltsa handi batean sartuta, etxez etxe banatzen zituen kartak. Orduan ez zegoen buzoirik eta ezkaratzeko atea zabalik egoten zenez, etxeraino



Maria Luisa Zalakain

"Norbaitek lokutoriora deitu eta mezuren bat uzten zizunean, telegrama bidaltzen zizuten etxera, konferentzia zein egun eta ordutan zeneukan zehaztuz"

ekartzen zituen". Lumanetarrek Amasako Arantzaldeko Migel ezagutu zuten karta partiketan. Aurretik, Villabonako Jose Maria Arrospide aritzen zela ere azaldu dute. Eta gutuna bidali nahi zuenak zein pauso ematen zuen? "Zigilua estankoa erosten genuen, -orain optika dagoen horretan-, eta plazako buzoira botatzen genuen gero".



Joakina Berasategi, ezkondu arte telefonista.



Pakita Berasategi, jubilatatu arte telefonista.



Organistaneko Joakin; maisua, organista, alpargatagilea eta telefonista.

MEDIKUA ETA PRAKTIKANTEA, GAIKOARI LAGUNDUZ

Norbait gaixotzen zenean, medikuaren etxera joaten ziren garai batean. Geroago kontsulta jarri zuten, orain Itzalpe taberna dagoen etxean, beheko solairuan. Medikua kontsultaz gain, praktikantearentzako gela eta itxarongela ere baziren. “Beain praktikanteak indizioak ematen zituen han bai-

na, orratzak irakitera ondoko etxera joaten zen. Erditzeak zirenean, emaginarekin batera egiten zuen lan. Gabriela Laskurain zen herriko emagina. Pio aguazilaren emaztea”. Amasan norbait gaixotzen zenean praktikantea igotzen zen eta oso beharrezkoa zen kasuetan, medikua bidaltzen zuen”. Kale

Berriko kontsultaren gainean, dentista ere bazen; “Amelburu. Donostiatik etortzen zen, asteazkenetan eta larunbatetan”. Gai- ren batean espezialdutako medikuren bat behar izanez gero, Donostiara joaten ziren. Botika bazen herrian, “botika bakarra eza- gutu dugu; Larburu, betikoa”.

UZTARGILEA ETA ESKULANGILEA, UZTARRIAK ETA SASKIAK

Hitz beraren azpian bi lanbidez hitz egin daiteke. Batetik, baziren herritarrentzat ezkontzeko bikotea bilatzen zutenak, senar-emaztea osatzen ahalegintzen zirenak. ‘Ezkon dadila emakume hau gizon honekin edo alde- rantziz’ esaten zutenak. Villabonan nahiz

Amasan hizlariak entzun dute langintza horren berri, baina ez dute inor ezagutu. “Esa- ten zuten *Kasakunako* neskak baserriko gizo- nen batekin elkartzan zituztela batzuetan”. Bestetik, ganaduentzako uztarriak egiten zituztenak ere uztargileak ziren. Amasan eta

Villabonan uztargilerik ezagutu ez zuten arren, Asteasun ba omen ziren, “aita- semea aritzen zen uztarriak egiten. Inaxio eta Eulogio Iraola”. Uztarrria ez, baina bestelako esku- lanak lantzen zituzten; tartean zumitza. Ia etxe guztietan egiten ziren saskiak.

IKAZKINA ETA KARBONEROA, HARGINA ETA HARROBIZALEA

Ikatza egitea txondorgileen lana zen. “Amasamendin talde polita aritzen zen lanean, nahiz eta amasarrik eta villabonatarrik ape-



Ikazkinak Amasamendi inguruetan lanean.

nas aritu. Alkizan baziren txondorgileak, baina inguru honetara, Nafarroatik etortzen ziren basomutil gehienak”. Txondorgilearen bizimodua gogorra zen, zalantzarik gabe; “hogei bat mutil elkartu, txobola egin eta hura izaten zen haien bizitokia. Arrantxero bat ikazkinen artean izaten zen guztientzako otorduak prestatzeko”. Ikatzik gehien 1945-1952 urteen artean erabiltzen zela azaldu dute hizlariak, “egurikatza asko erabiltzen zen, sutarako ikatza ere bai. Kanean ikatz-saltzaileak ibiltzen ziren, zakuka edo kiloka ikatza saltzen. Karbo-

neroak esaten zitzairen”. Ikazkinez gain, harginak bat baino gehiago ziren Amasa-Villabonan, “harrizko paretak egitea zen haien lana. Baina aurretik, koadrilak aritzen ziren harriak prestatzen; arkuak egiteko, izkinarriak, ate-leihoen gaineko harriak...”. Loat- zon harrobi bat ba omen zegoen, “oso ona gainera”. Otsabin ere ateratzen zuten harria, “jolas-parkea dagoen horretan”. Harrobietan lan egitea ere ez zen lan makala, “harrobizaleak mailuekin eta palankekin aritzen ziren lanean. Lan gogorra zen, batek baino gehiagok txikitu zituen eskuak”.

PERRATZAILEA ETA ERREMENTARIA, BURDIN-LANGILEAK

Ganadua lanerako ezinbestekoa zen garaian, perratzailearen lana oso garrantzitsua zen. Albaitariaren lanarekin loturaren bat izan zezakeen perratzailearenak, animalien oinak sendatzeaz arduratzen baitziren, "perrak jartzen genizkien animaliei, denak perratuta ibiltzen ziren orduan. Astoak, idiak eta behiak, bereziki". Errementariak burdinarekin egiten zuten lan, "perrak egiten genituen, base-rietarako erremintak, gurdi-gurpilak...". Pello Iribar Lumaneko kidea Villabonako perratzailea izan da urtetan, familiarik etorri ziztaion ofizioa ikasteko grina, besteak beste, osaba ere perratzailea baitzuen. "Villabo-

nan perratzaile eta errementari bat baino gehiago ezagutu nuen eta inguruko herrietan ere bai. Orduan oso hedatuta zegoen perratzailearen lana". Galdutako lanbideen zerrendan sar daiteke dagoeneko perratzailearen lana, baita errementariarena ere. Pellok duela denbora gutxi eman zion amaiera bere perratzaile eta errementari ibilbideari. Eskertu beharreko jarrera erakutsi zuen gainera. Bere lan tresnak San Telmo museora eramane zituen, guztiok perratzailearen langintza ezagutzeko aukera izan dezagun. Burdinezko mailu handia, txingudea eta sutegia dira/ziren errementariaren lan tresna nagusiak.



Pello perratzailea lanean.

...ETA HURRENGOAN ZER:

Urtarrileko zenbakian lanbide zaharrez hitz egin badugu, otsailkoan lantegiak izango ditugu mintzagai. Villabonako izen handiko lantegi bat baino gehiago izan zen; tartean Subijana, Salvador, eta baita geroago, Sacem ere. Zizurkilen egonagatik, Portu papertegian amasar nahiz villabonatar ugarik lan egin zuenez, hizketagai izango dugu hura ere. Ez dugu Amasako muttegia ahaztuko eta lantegi txikiagoek ere aipamena izango dute. Ordu-ra arte, bada, urte berri on guztioi!



Subijanako langileen festa maiatzaren 6an.

"Garai onean jaio zineten zuek" diote hizlariak, guri, gazteagoci aipamena egin. Ez dute arrazoi falta handirik, seguru asko.



Maritxu Mendizabal



Pello Iribar



Pako Etxenike



Martin Laskurain



Maritxu Gonzalez



Encarna Jarza



Jabier Berasaluze



Maria Luisa Zalakain

EGUTEGIA

Lumane argazki zaharren egutegia eskuratu nahi baduzu, oraindik baduzu aukera! Ohiko lekuetan salgai daude, bost euroren truke, urtarriaren 9ra bitarte. Ondoren, salgai, gure egoitzan.

ESANAK ZEHAZTUZ

Lumane egutegiaren apirilko argazki nagusian, langileak T turko tabernaren kanpoaldean ageri direla genion. Akats galanta; langileak Exekiel tabernaren atarian baitaude. T turko taberna ere Kale Nagusian egonagatik, geroagokoa da.

ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Truxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurilaritza KULTURA SAILA